



BEASAINDIK

ARGITARATZAILEA: BEASAINGO UDALA • LG SS-00403-2016

Elkartek, Beasaingo arnasaren hauspoa



**Las asociaciones locales dan vitalidad
al pulso social de Beasain**



Udazken kulturalak
Beasainek kulturarekin
duen konpromisoa aza-
leratuko du beste behin

02-03



Udalak Europako
Mugikortasun Astearen
baitan hainbat ekimen
abiarazi ditu

06-07



★
Zuen
alkatea

Leire Artola Ugalde
BEASAINGO ALKATEA

Elkarteen eskutik

Beasaingo elkartegintza betidanik gure herriaren bihotza izan da. Elkarlana, batasuna eta herri nortasuna sustatzen dituzte elkarteek, bakoitza bere esparruan —kultura, kirola, gizarte-arloa eta beste-lakoak— egindako ekarpenekin. Haien tradizio luzea eta ibilbide sakona gabe, eguneroko Beasain ez litzateke gaur egun bezain bizia eta dinamikoa izango.

Elkarteek herritarren arteko harremanak sendotzen dituzte, gure gizartea elkarlanean eraikitzen laguntzen dute, eta ekimen eta jarduera ugariren bitartez gure komunitatea bizirik mantentzen dute. Herriko elkarte eta eragileek arteko lankidetzak eskaintza aberatsa eta parte-hartzailea sortzen du, beasaindar guztien gozamenarako eta onurarako. Lankidetzan hobetzeko, komunikazioa erraztu

eta baliabideak partekatzeko bide berriak ireki behar ditugu. Etorkizunera begira, erronka nagusia izango da belaunaldi berriak elkartegintzara erakartzea eta gure nortasun kolektiboa indartzen jarraitzea.

Udal Gobernu honentzat, elkartetzearen eta elkarte-sarearen babesa estrategikoki funtsezkoa da. Haien lanari esker, kirola, kultura eta bestelako jarduera sozialak gure herrian bizi-bizi daude, eta gure nortasuna aberasten dute. Horregatik, herriko elkarteekin elkarlanean jarraitzea eta euren jarduera sustatzea izango da gure konpromiso nagusietako bat.

Eskerrik asko zuen parte-hartzearengatik eta gure herria elkarlan, batasun eta nortasunarekin bizirik eta dinamikoa izaten laguntzeagatik.

De la mano de las asociaciones

La actividad asociativa en Beasain es el corazón de nuestro pueblo. Gracias a la tradición y trayectoria de las asociaciones culturales, deportivas y sociales, fomentamos la colaboración, la unidad y nuestra identidad colectiva. Sin ellas, Beasain no sería un lugar tan vivo y participativo.

En la colaboración con las asociaciones aún podemos mejorar, abriendo canales de comunicación más directos y compartiendo recursos de manera más eficaz. Y

mirando al futuro, el gran reto será atraer a las nuevas generaciones hacia la vida asociativa y seguir reforzando nuestra identidad común.

Para el Gobierno local, apoyar esta red es esencial: permite mantener la vida cultural, deportiva y social activa y cercana a los vecinos. Seguiremos trabajando junto a las asociaciones, reconociendo su labor y su contribución diaria a nuestra comunidad.



Beasain abre las puertas a su Otoño Cultural: más de 50 propuestas para disfrutar

Otoño Cultural: del 24 de septiembre al 9 de noviembre

El programa del Otoño Cultural se celebrará del 24 de septiembre al 9 de noviembre con más de 50 actos. Es fruto del trabajo de asociaciones y agentes locales en colaboración con el Ayuntamiento, y está pensado para toda la ciudadanía.

Se trata de una de las citas culturales más importantes del año, clave para mantener viva la red asociativa y la cultura en el pueblo.

La programación se ha dividido en dos partes:

- **Del 24 de septiembre al 21 de octubre**, incluida en el folleto repartido en los hogares.
- **Actualizaciones y cambios de última hora**, disponibles en la web municipal y en la app móvil.





Udazken Kultural bizia Beasainen 50 jarduera baino gehiagorekin

Udazken Kultureleko egitaraua irailaren 24tik azaroaren 9ra

Udazken Kultureleko egitaraua irailaren 24tik azaroaren 9ra luzatuko da, eta bi hilabetetan 50 kultur ekitaldi baino gehiago biltzen ditu. Beasaingo herriko elkarte eta eragileek egindako lanaren emaitza da, eta udalarekin elkarlanean sortutako eskaintza hau herritar guztientzat pentsatuta dago.

Udazken Kultureleko programazioa urteko dinamika kulturealean garrantzitsuenetako bat da, eta Beasaingo elkartegintzaren sarea

eta kultura babestea funtsezkoa da herri bizia mantentzeko.

Egitaraua bi ataletan argitaratu da:

- **Lehenengo atala, irailaren 24tik urriaren 21era** bitartekoa, etxeetan banatutako egitarauan jasota dago.
- **Azken orduko aldaketak eta eguneraketak**, udalaren web orrian eta aplikazio mugikorrean kontsulta daitezke.

Egitaraua / Programa

Dantza:



- **Ilauna** – Bilaka Kolektiboa (Iparraldea)
- **Amama** – Aukeran Dantza Taldea

Musika:



- **Olaia Inziarteren kontzertua** – (Igartzta Musika Zikloa)
- **Kamer Youth Choir (Letonia)** – Tolosako nazioarteko abesbatzen lehiaketako zirkuituaren barruan.

Antzerkia:



- **Flama Viva** (kale antzerkia) – Spanish Circo, sua protagonista, Iturralde Plazan
- **Neura** – Ste Xeito konpainia
- **Biztanlerik gabeko etxe bixtanleak** – Urrup Taldea
- **Lotura Basatiak** – Goaz Antzerki Taldea
- **Garbitzailearena** – Markel Oizartabab (June Aiestaran eta Iker Ormazabal bertsolariekin), antzerki familiarra.
- **Estela eta Merlin** – Txalo konpainia, haur antzerkia.

Nabarmentzekoak



- **“WikiEmakumeOK Donk”** dokumentala + **Marisa Barreren** mahai ingurua.
- **Gau Beltza ospatzeko erromeria** – Balantza Taldearen eskutik. Gau honi berezko nortasuna emate aldera, egitarauan tarteia eman zaio.

Ohiko eta tradizionalak:



- **Elkarteen eguna**
- **Marrazketa urbana** (edozein maila)
- **Mendi astea** eta mendi martxa
- Jendaurreko **margo sariketa**
- **Argazki erakusketak** eta argazki rallya

- Lemniskatak antolatutako **zientzia hitzaldiak**
- **Saloiko dantzan** erakustaldiak
- **Ipuin kontaketa** eta haur antzerkia
- **Txistularien alardea** eta bertso saioak
- **Asmubeko** kideen emanaldia
- **Liburu aurkezpenak** eta literatura solasaldiak
- **Kantujira**
- **Erraldoi eta buruhandien irteerak, Odolkiaren kofradi eguna eta Ekaitz konpartaren ekitaldiak**
- **Miniatuazko gomazko erraldoiak** salgai jarriko dira – salmenta puntuak jakinaraziko dira



★ Eskuratu egitarauaren lehen atala / Descarga la primera parte de la programación

Beasaingo III. Elkarteen Eguna

Herriko elkarte-sarea plazara

Urriaren 4an, larunbatean, Erauskin plaza elkarteen erakustoki bihurtuko da hirugarren urtez. Beasaingo Elkarteen Eguna herriko elkarte-sarea ikusarazi, balioan jarri eta elkar ezagutze-ko helburuarekin sortu zen. Aurten ere, elkarte ugari hartuko dute parte beren stand eta erakustokien bidez.

Ekitaldiaren bidez, herritarrek elkarteen eguneroko lana ezagutzeko aukera izango dute: beren proiektuak, zerbitzuak eta ekintzak aurkeztuko dituzte. Goizean zehar, elkarreek euren artean harremanak sendotzeko eta lankidetzat sustatzeko parada izango dute, eta herritarrek, berriz, elkarrekin gerturatzeko eta parte hartzeko aukera. Elkarteen eguna ekarpen baliotsua da, Beasaingo elkartegintza sarearen indarra eta aniztasuna agerian jartzen duelako. Horregatik, hiru elkarte desberdinetako kideek euren iritzia plazaratu dute: elkartegintzaren garrantziaz, erakunde publikoekin lankidetzan hobetu beharrekoaz eta etorkizuneko erronka nagusiez.



01 BEASAINEN DAGOEN ELKARTEGINTZA SAREAK ZER NOLAKO GARRANTZIA DU ETA EGUN HONEK ZER EKARRI DU ZURE USTEZ?



Belen Callejo

LOINATZ ABESBATZA

1. Betidanik Loinatz abesbatzak beste arloetako (dantza, antzerkia...) elkarrekin lankidetzan antolatatu ditu ikuskizun ezberdinak. Horrek aberastu egiten du elkarrearen lana eta ohiko emanaldietatik ateratzen zaitu. Elkarteen egunean egoteak gure ekimenak jakinarazi eta emanaldietara etortzen ez den jendearengan iristeko aukera ematen du.
2. Agian burokrazia. Legeak eskatzen dituen tramiteak astunak eta lan asko ematen digute gure eginkizunaz gain.
3. Gure jarduera erakargarri egiten jarraitu nahi dugu. Musika eta abestea maite dugu eta gure elkartean adin mugarik ez badago ere, gazteak gerturatu nahi ditugu.

02 ERAKUNDE PUBLIKOekin DUZUEN LANKIDETZATIK ZER HOBETU DAITEKE?



Jabier Elorza

LEMNISKATA ZIENTZIA ELKARTEA

1. Ez dira urte asko sortu gurea Lemniskata eta gure jarduera ezagutzera emateko zeharo baliagarria da egun hau. Gure ustez, hutsune bat betetzera etorri ginen eta gure ekitaldiek duten harrerarekin oso pozik gaude. Elkarteen egunak horretarako balio du eta beste elkarrekin gure jarduerak batzeko ere balio du.
2. Ez dugu ezer faltan botatzen. Beti dago gehiago eskatzea, baina betebeharrak eta eskubideak orekatu behar dira eta elkarlana ezinbesteko da. Bide berberetik jarraitu behar dugu.
3. Gure jarduerak ahalik eta aberatsenak eta publiko orokorarentzat erakargarriak izatea da gure ahalgina. Horretan jarraitu nahi dugu.

Las asociaciones toman la calle

El 4 de octubre la plaza Erauskin acogerá la tercera edición del Día de las Asociaciones, una jornada para dar visibilidad a la red asociativa de Beasain, ponerla en valor y acercarla a la ciudadanía.

Las asociaciones participantes mostrarán sus proyectos, servicios y actividades, mientras que las y los vecinos podrán conocer su labor de cerca y descubrir nuevas formas de implicarse. Además, será una oportunidad para reforzar la colaboración entre las propias asociaciones.

Este día refleja la importancia de la red asociativa de Beasain y los retos de futuro que afronta, como la mejora de la colaboración con las instituciones y la implicación de nuevas generaciones.

03

**ETORKIZUNARI BEGIRA,
ZEIN DIRA ZUEN ELKAR-
TEAK DITUEN ERRONKA
NAGUSIAK?**



Iban Aranburu

BEAR PINTURA ELKARTEA

1. Elkarateak herriaren motorrak dira, kulturalki, kirolean eta beste hainbat arlotan. Elkarteen egunak egiten duguna zabaltzeko balio du zalantzarik gabe.
2. Ez gaude kexatzeko, baina publizitate gehio, eta instalazioetan hobekuntza txiki batzuk ongietorriak izango lirateke.
3. Martxan jarri ditugun ekimen berriak mantendu, eta berriak sortzea da gure asmoa.

★ Colaboración, visibilidad y retos para el futuro

Colaboración y visibilidad: Loinatz Abesbatza destaca la riqueza de trabajar junto a otras disciplinas y valora el Día de las Asociaciones como escaparate para llegar a un público más amplio.

Trámites y burocracia: La carga administrativa sigue siendo un reto para las asociaciones, que debe gestionarse sin restar dinamismo a su labor diaria.

Retos de futuro: Mantener las actividades atractivas, implicar a jóvenes y ofrecer propuestas diversas para toda la ciudadanía.

Valor del encuentro: Lemniskata resalta la oportunidad de darse a conocer y sumar fuerzas con otras asociaciones; para muchas entidades, el Día de las Asociaciones es la “mejor plaza” para mostrar su trabajo.

EUROPEAN MOBILITY WEEK

16-22 SEPTEMBER 2025



MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN ALDE
POR LA MOVILIDAD SOSTENIBLE




Beasaingo
Udala



DISTANTZIAK MINUTUTAN
DISTANCIAS EN MINUTOS

3 / 4 min	
4 / 6 min	
5 / 8 min	
9 / 13 min	
10 / 15 min	
14 / 20 min	

5 km/h
Adinez nagusiak
Mayores de edad



Beasaingo Oinezko Metroa

Metrominuto de Beasain

Beasaingo Udalak Oinezko Metroa aurkeztu du Europako Mugikortasun Astearren harira, herritarren joan-etorriak oinezko mugikortasun aktibo eta jasangarrira bideratzeko. Barrendain plazan jarritako mapa handi batek udalerriko puntu nagusien arteko denbora kalkulua erakusten du, metro-plano baten estiloan, eta herriko ikasleek eta hirugarren adineko herritarrek tailer batean egindako ekarpenetan oinarrituta diseinatu da.

Mapa honek Beasaingo toki esanguratsuak —hala nola Igartzako jauregia, Loinazko Basilika, Sagastiguti parkea eta eskola nagusiak— eta bi abiadura erreferente (3,5 km/h eta 5 km/h) jaso ditu, herritarren artean oinezko joan-etorriak sustatzeko eta mugikortasun jasangarria bultzatzeko. Mapa udalaren webgunean ere eskuragarri dago.

El Ayuntamiento de Beasain ha presentado su Metrominuto con motivo de la Semana Europea de la Movilidad, para fomentar los desplazamientos a pie y un municipio más activo y sostenible. Un gran mapa instalado en la plaza Barrendain muestra los tiempos a pie entre los principales puntos del municipio, diseñado a partir de las aportaciones de estudiantes y personas mayores en talleres participativos.

El mapa destaca lugares emblemáticos como el Palacio Igartza, la Basílica de San Martín de Loinaz, el parque Sagastiguti y los centros educativos, indicando tiempos de desplazamiento con dos velocidades de referencia (3,5 km/h y 5 km/h). Además, está disponible en la web municipal, ofreciendo a la ciudadanía una herramienta práctica para caminar por Beasain y fomentar hábitos de movilidad sostenibles.





Partecar reactiva las bonificaciones

Con el inicio del nuevo curso, el Ayuntamiento de Beasain ha vuelto a activar las bonificaciones de la iniciativa Partecar. A través de la aplicación, las personas usuarias pueden compartir coche en sus desplazamientos diarios, reduciendo emisiones y mejorando la ocupación de los vehículos privados.

Las bonificaciones ofrecen un 50 % de descuento, con un máximo de 2 € por trayecto y pasajero. El objetivo es fomentar la movilidad sostenible y facilitar que compartir coche sea una opción cómoda y atractiva para todos.

Partecar-en hobarien poltsa berriro martxan

Ikasturte berriaren hasierarekin, Beasaingo Udalak Partecar ekimena berriro aktibatu du. Honen bidez, herritarrak autoa partekatuz joan-etorriak egiten dituzte, hala nola lanera edo unibertsitatera, auto pribatuen okupazio-tasa handitzeko eta emisioak murrizteko.

Hobarien poltsak %50eko deskontua ematen die aplikazioaren erabiltzaileei, ibilbide bakoitzeko gehienez 2 €-ko hobariarekin. Helburua mugikortasun jasagarria sustatzea eta ingurumenaren alde egitea da, autoa partekatzea erraza eta erakargarria bihurtuz.



**Xehetasun gehiago
udalaren webean**
**Más detalles en la web
municipal:**



Merezitako omenaldia / Homenaje merecido

Adinekoen urteroko bazkarian, Lore Aldaregia eta Fernando Presa izan ziren omenduak. Zorionak!

En la comida anual de las personas mayores de la localidad, fueron homenajeados Lore Aldaregia y Fernando Presa. ¡Enhorabuena!



Beasain
#GGT2025



Gipuzkoan Gazte Tour Beasainen

**MUSIKA ETA ARTE ESZENIKOAK
NERABEEI ETA GAZTEEI HURBILDUZ**

Beasaingo Udalak aurtengo Gipuzkoan Gazte Tour ekimenaren barruan, nerabe eta gazteei kultur programazio erakargarria eskaintzeko helburuarekin bat egin du.

Urriaren 4ean, Beasainen musika eta arte eszenikoen ekitaldiak eskainiko dira. **Dantza masterclassa** eskainiko du Sara Eliro dantzariak eta Kontzertuak Ezkierdi pilotalekuan izango dira 19:00etatik aurrera. Kontzertuen programazioan lehen mailako artistak eta tokiko gazteen erakustaldiak egongo dira, besteak beste: **KIIMAK, UNDERCARROT DJ, SOTOALDE eta MARTE LASARTE.**

Ekimen honek, nerabeek eta gazteek kulturaren parte sentitzeko eta aisia aktibo eta parte-hartzailea izateko aukera eskaintzen du. Ekitaldi guztiak gazteentzako diseinatuak daude, eta sarrera dohainik izango da.

...Artistak
**TATTA &
DENSO
MARTE
LASARTE
SOTOALDE
DJ SET UNDERCARROT**
...Artista gonbidatua
KIIMAK
Urriak 4 de octubre



**Ezkierdi
Pilotalekua**

19:00

**Dohainik
Gratuito**

MASTERCLASS

Beasain
#GGT2025



...Dantzaria
**SARA
ELIRO**

MÚSICA Y ARTES ESCÉNICAS PARA JÓVENES

El Ayuntamiento de Beasain se suma al Gipuzkoan Gazte Tour, con el objetivo de ofrecer programación cultural atractiva a adolescentes y jóvenes.

El 4 de octubre, Beasain acogerá una **Dance Masterclass con Sara** y los conciertos en el frontón Ezkierdi desde las 19:00. Participarán artistas de primer nivel y talentos locales, como KIIMAK, UNDERCARROT DJ, SOTOALDE y MARTE LASARTE.

La iniciativa permite a los jóvenes sentirse parte de la cultura y disfrutar de ocio activo y participativo. Todas las actividades están diseñadas para este público y la entrada es gratuita.



**Dantza Masterclassean
izena emateko eskaneatu
QR kode hau**

**Para apuntarse a la
Dance Masterclass,
escanea este QR**

